

Nafarroako  
euskaltasunerako  
proposamenak



batzarre



## AZKEN URTEOTAKO BILAKAERA

Gaian bete-betean barneratu aurretik azken hamarkadetan euskaltasunak gure lurraldean izan duen bilakaerari buruzko sarrera txiki bat egingo dugu. Laburra izateak alde batekoa eta eskematikoa izatera behartzen du, halaberrez. Har ezazue barkamen gisa.

Nafarroako gaur egungo euskaltasuna hirurogeiko hamarkadan zehar sortu eta garatu zen ikastolen, kultur, mendi eta aisialdi elkarteetan, EAJ eta abertzaletasun erradikalaren eta, batez ere, 1979ra arte ezker iraultzailea izenarekin ezagutzen zena buru zuen langile-mugimenduaren eskutik. Izaera politiko-sindikaleko mugimendu hau Nafarroako CCOOen barruan zegoen -gure lurraldeko mugimendu sindikal osoa biltzen zuen- eta Nafarroako toki askotan aurki zitekeen. Honek, ikur nagusizat, antifaxismoa eta, gizartea eralda-tzeko asmoak bultzaturik edo, euskaltasuna hartu zituen. Bere baitan, Estatu espainiarreko gainontzeko herriekiko nola edo halako batasunaren aldeko ideia zehaztugabea, Estatu ereduaren inguruko definiziorik eza eta, batez ere, amankomuneko etsaiari eurre egitearren, hispaniar penintsulako gainontzeko herriekiko elkartasun eta lankidetzaren sentimendua gailentzen ziren. Nafarroako CCOO antolaketari zegokionean ezezik helburuei, kultura politikoari, borroken arteko lankidetzari eta greba orokorreki zegokienean ere gainerako euskal mugimendu sindikalekin guztiz bat zetozen indar bakar batean. Estatuko langile komisiorekin ere koordinazioa egon zen, nahiz eta hauek Espainiako Alderdi Komunistaren menpe egon.

1976-1977 urteak euskal batasunaren aldeko urterik onenak izan ziren. Frankismoaren krisialdi larriak eta eskubiko indarren noraezak izugarritz lagundu zuten. Demokrazia eta euskaltasuna bat eta bera ziren. Izan ere, 1977ko hauteskundeetan, gabezi demokratiko handiak izanda ere (ezkerreko alderdi asko ez ziren legezkoak, 21 urtetik gorakoek besterik ez zuten botu eskubidea, komunikabideen gaineko erabateko kontrola), botu gehinenak nola edo halako euskal batasunaren aldekoak izan ziren (botuen %54,2 alde eta %37,6 botu antieuskaldunak). Ezkerreko indarren sakabanaketa zein ETA-militar taldeak bultzaturiko abstentzioa zirela medio gehiengo hau ez zen ordezkari parlamentarioan gauzatu. Batasunaren aldeko UNAI Nafarroako UCD antieuskaldunaren kontura diputatu bat lortzetik ehundaka botutara besterik ez zen geratu zen.

1979rako harea mugikorreko ezker sozial hartan, alde batetik, HBk eta, beste aldetik, ETA-Militarrak jadanik sartu eta ezker erradikalaren barruan nagusigoa lortu zuten. ETAk, bere adar desberdinetan, ez zuen 1977ra arte Nafarroan errotzerik lortu. Urteotan -hirurogeita hamarreko hamarkadaren bukaera aldean- ETAk itxaropen handia sortarazi zuen diktadurarekin errotik hautsi eta orduko Erreformak eskaintzen ez zituen garaipen sozial, abertzale eta aurrerakoiak lortuko zituelakoan. Zeregin horretan HBren sorrera ere oso lagungarri gertatu zitzaion, indar fresko, zabal eta antolaketari dagokionean aniztasun handikoa zelako, hainbat ikuspuntu politiko biltzen zituelako eta sandinista garaileen antza zuelako. Jazotako aldaketak ezker haren kultura politikoaren funtsan izan zuen eraginaren ondorioz honek abertzaletasun

**Nafarroako euskaltasuna ikastolen, kultur-elkarteetan, EAJ eta abertzaletasun erradikal taldeen eta, batez ere, gizarte-erlaidaketa eta euskaltasuna ikurtzat hartuko zituen langile-mugimenduaren eskutik sortu eta garatu zen. (...) 1977. urtea euskal batasunaren aldeko unerik onena izan zen.**

erradikal<sup>1</sup> eta antiespainiolaren bidea hartu eta *benetako euskal ezaugarrien* arabera, bultzatzaileen hitzetan, uniformizatu nahi izan zuen, nahiz eta ezaugarriok nafar gizartean gutxiengoan zeuden. Argi eta ilunez zein alderdi on eta txarrez betetako herri mugimendu haren baitan, orokorrean, beste euskaltasun era bat eta, neurri batean, desberdinaren alde egin genuenok, are gehiago Nafarroan, bigarren mailan geratu ginen.

Ondorengo urteetan Nafarroako idar abertzalearen joera, oro har, beheranzkoa eta, aldi berean, kontraesankorra izan zen. Alde **politikoan** atzera jo zuen, hauteskundeetako datuak horren erakusgarri (1977ko %54tik -edo %34tik PSOE gabe- azken hauteskundeetako %15-17-13ra arte); eta PSOE zein IUk beren mezuak nabarrismo maila desberdinetarantz bideratzu dituzte. Oraingoz CDNk hartuko duen bidea eta, batez ere, bere finkatzearen inguruan zana-lantza handiak daude.

Gizarteko errealitateak bi komunitateen arteko banaketa egiaztatzen du (indar politiko eta sindikalen egitura desberdina; langabeziaren, ongizatearen eta hazkundearen bilakaera desberdinak, nahiz eta azken urteotan joera hau moteldu den; Honen guztiaren ondorioz arestian Nafarroan EAEk sortarazitako erakargarritasun hura desagertuz joan da). EAerekin nolabaiteko batasun politikoa lortzeko itxaropenak jaitsi egin dira. Erakundeen banaketan sakondu eta bi komunitateetan elite independienteak sortzen dira.

Alde **kulturala** dei geniezaiokeanean, aitzitik, goranzko joera somatzen da. Euskarazko irakaskuntzak gora egin du etengabe, gero eta hirritar gehiagok ezagutu eta estimatzen du-eta. Nolabaiteko euskal kultur komunitatearekiko gizarteko sektore garrantzitsu batzuen atxekipenari eutsi egiten zaio: 1994ean Diario de Noticiasek egindako inkestaren arabera %50ek oso edo neurri batean euskaldun dute beren burua. UPNko botu emaileen %18, PSOEko %28 eta IUko %42k oso edo nahiko euskaldun direla diote.

**Ondorengo urteetan euskaltasunaren joera, oro har, beheranzkoa eta kontraesankorra izan zen. Alde politikoan atzera jo zuen (...). Alde kulturalan, aitzitik, goranzko joera somatzen da.**

Hogei urte egin dira, nolabait esateko, HB eta ETAREN tesi bateratzaile gogorrenen menpe. Gaur egun gure gizartearekin zerikusirik ez duten ezaugarrietan, profil gogor eta zakarretan eta abertzaletasun erabat antiespainiolean oinarriturik euskaltasunari dagokionean (eta nafartasunari dagokionean ere bai) korrante uniformizatzailea bultzatu dute. Hego Euskal Herria eta Nafarroa batzea gutxienezko eta ezinbesteko baldintza dela diote, Nafarroako biztanleen iritzia jaramonik egin gabe. Bide honetatik, presio politiko-militarraren bidez, Estatua eta elite nabarrista euskal batasunaren aurkako jarreraren amore ematera behartu nahi izan da.

Estrategia honen azpian dagoen analisiaren arabera hauexek dira batasuna eragozten duten indarrak. Gure ustez, ikuspegi hau -are gehiago 1998an- alde bakarrekoa eta, beraz, okerra da ez baitu kontuan hartzen, oztopo horietaz gain, Nafarroako hiritar multzo zabal batek ez duela batasunaren premia ikusten ezta, are gutxiago, HB eta ETAK defendatu-

tako eredu euskaldunari egokitu ere. Edozelan ere, bide hau, inoiz euskal batasuna erdies- teko (edo batasun euskonafarra) eragingarri izan bazen, orain guztiz agortuta dago. Beste arazo bat bide posiblea aurkitzearena da, baita gorputz ideologiko-politiko hori nafar gizartean indar nahikoa duen korrante politiko bat eratzeko baliozkoa ote den ere. Azken hau HB eta ETAK sobera lortu dute.

<sup>1</sup> Hemen *erradikal* hitzak ez du esanahi positiborik. Postulatuetan emandako norabide aldaketa egiaztatzeko baizik ez da erabiltzen; izan ere, diktadurari lotutako jauntxokeria nabarristari ezezik ETA-Militarrak alternatiba zilegi bakarra balitz bezala defendatutako komunitate-identitatearekin ez atxekitutako hiritar multzo handiei ere aurre egitea zekarten beraiekin.

Halere, onartu beharra dago beste jarrera batzuk ez direla izan arrakastatsuagoak. Aitzitik, abertzaletasun moderatuaren eragina dexente txikiagoa da eta ez du hazterik lortzen. Hemen aipatu besterik egingo ez dugun arazo bat agertzen da: euskal abertzaletasunak sekulako oztopoak aurkitu ditu beti nafar gizartearen hedatzeko; eta frankismoaren erorialdiaren ondoren, Arabako egoerarekin alderatuz gero ere, ezarpenen arteko aldea ikaragarria da.

Euskal herriaren hainbat sektoretan zehar zabaldutako negoziatorako grinaren babesean (edo gobernuak honi uko egiteko irrikan) eta, logikoki, konpondu gabeko arazoa delako, gaurkotasuneko kontua da. Jarraian hainbat hausnarketa egingo dira modu ireki batean etorkizunari begira, ia zirriborro gisa, bide erabat berri baten hasiera bailitzan. Badakigu, jakin, proposamenak berehala zerbait lortzeko asmoa erakutsi baino hausnarketaren edo propagandaren mailan kokatu behar direla. Asmo horretarako diseinu landuagoa eta, batez ere, gizarte-indarra beharko litzateke-eta praktika eramateko.

## EGUNGO EGOERAREN OSAGIAK

Abiapuntua hauxe da, nafar izatearen inguruan adostasun zabala eta ikaragarriko banaketa gainontzeko komunitate-identitateei dagokienean (espainiar, euskal eta nafar identitatea).

Gure iritziz, nafar identitatea Erdi Arotik gaurdaino Nafarroak berezko izaki gisa izan duen historia luzean, bere erakunde amankomunen eta ahalmen handiagoa ala txikiagoa izan duen autogobernuaren jarraipenean datza nagusiki. Gutxi gora-behera, mendeetan zehar eta ia etengabe gaur egungo bere mugen inguruan egituratzeak eta hizkuntz eta kultur aniztasunean elkarrekin bizitzeak, mitoen, ohituren eta aldatuz doazen erreferentzi enblematikoen sorrerak hondarra utzi, belaunaldiz belaunaldi igaro eta tradizio egiten dira. Hauexek dira alderdi askotan hain desberdina den errealitateari koherentzia ematen diotenak. Osagai hauen babesean nafar kontzientzia eratzen da hiritarren eta elkarrekin jarraitzeko borondatea berri. Honelako jarrerekin gertatu ohi denez, nekez defini daitezke zehaztasunez; sarri askotan beren zehaztugabetasuna eta anbigutasuna dira hain jende desberdinaren artean zabaltasuna ematen diotenak.

Nafar izatea nafar hiritar askorengan dago, eta hala erakusten dute inkestek, erakutsi ere. Zonalde, adin eta baita garai historikoen arabera ere, ordea, desberdina da. Nafar identitateari edo planteatutako beste identitateei buruzko iritzia ez dira ez behin-betikoak ez itxiak. Oso erne ibili behar da gertatzen diren aldaketekin. Hala ere, momentuz eta ziurrenik denbora luzean herrian oso errotuta dagoen fenomeno da, hemengooi berezkoa zaiguna alegia.

Nafar identitatea, gaur egun dagoen eta bizi den moduan, oro har, hiritarrentzat multzo asegarri eta funtsean aldaezina da. Leku handiago batera mugitu daitezkeen etxearen gisan. Bere ingurunea zalantzan jarri eta berehalaxe, automatikoki, oso autodefentsa eta autoafirmazio erreakzio gogorra gertatzen da<sup>2</sup>. Espainiar nahiz euskal abertzaletasun gogorrek, ostera, askoz ere ospe txikiagoa izan dute.

**Egikaritutako botereak gehiengoaren araua aplikatzen du, gutxiengoentzako inolako osagarririk gabe (...) Hobekuntza herriaren berrespenik gabe onartu zen. EA Erekin batzeari edo ez-batzeari dagokionean, lehenengoz luzamendutan ibili zen, ondoren gehiengo kualifikatuak bultzatu ziren euskaltzaletasunaren kaltetan, eta arazoa bukatutzat eman zen sektore euskaltzaleentzako batere konpentsaziorik gabe (...) Hau guztia militarren begiradapean.**

Nafar kontzientzia ia hiritar guztiengan badago, euskal edo espainiar komunitateei dago-kienean honek bide desberdinak hartzen ditu. Honen aurrean, gaur egunera arteko auke-  
ra guztiek irtenbide kaxkarrak eman dizkiote arazoari.

## Ezarritako boterea

Egikaritutako botereak gehiengoaren araua aplikatzen du lurralde-izaerako irizpideen arabe-  
ra; gutxiengoentzako inolako osagarririk gabe eta jite pertsonaleko esparrurik kontuan hartu  
gabe. EAE eta Nafarroaren batasunerako aurrikusitako legeriak<sup>3</sup>, edo bi elkarten artean egin  
litezkeen hitzarmeen gaineko araudiak<sup>4</sup> atsekabea sortu dute. Justifikatu gabeko lege-oztopo-  
ak ezartzen dituzte gehiengo kualifikatuen bidez tesi bateratzaileen kaltetan; balizko erre-  
ferendum abstrakto eta manipulagarri bat planteatzen da; eta gutxiengoarentzat ez du kon-  
pentsazio esparrurik aurrikusten. Hitzarmen lerro bat ezartzen da arazoa  
auzotasun arazo soil bat bailitzan, gutxiengo euskaltzalerik ez balego  
bezala. Eta, azkenik, bi arazoak elkar-teotatik kanpokoak diren eta Estatu-  
ko indarrek kontrolatuta dauden Gorteen menpe daude.

**EAE eta Nafarroaren arteko lankidetzak akordioak alde onak zituen: aurreko ibilbidearekiko haustura, neurri batean, kontzeptu interesgarri batzuen erabilera (lankidetzak, topaketa, bi lurraldeen parekotasuna). Baina (...) eskuduntzarik eza, sendotasun eskasa, kanpoko legeekiko erabateko menpekotasuna, hauen boterea EAE, Nafarroa eta beren hiritarren borondatearen gaintik dagoelarik.**

Are iraingarriagoa da egite prozesuan zehar gabezi demokratikoak nabariak izan zirela. Nafarroako Estatutua, Hobekuntza alegia, herriaren berrespenik gabe onartu zen. Hau onartezina da. Eta EAekin batzeari edo ez-batzeari dagokionean, lehenengoz luzamendutan ibili zen, ondoren gehiengo kualifikatuko mekanismoak bultzatu ziren, eta azkenek arazoa bukatutzat eman zen kontsentsurik edo sektore euskaltzaleentzako batere konpentsaziorik gabe. Hau guztia herriari galdetu gabe egin zen berriro, argi eta garbi hitz egiten utzi gabe, funtsezkoena ikus-puntu desberdinen arteko gutxienezko kontsentsua lortu eta, ondoren, herriak berrestera eramatea dela kontuan hartzeke.

Jukutria hauetan Estatuaren laguntza egon zen unerik erabakigarriene-tan: autonomi elkarten konfigurazio geografikoan 1977an, Konstitu-zioa, Estatutua eta euskal batasunari dagokion guztia urte haietan ara-zorik gorienak, eta hau bereziki, hainbeste baldintzatu zuten militarren begiradapean idaztea. Gertakizun hauek, Nafar euskaltzaleek lortutako emaitza apalak eta jarraitutako prozedurek beren artean gaur egun ere oraidik dirauen iruzur eta zapuzketa sentsazioa piztu zuten.

Baina baldintzarik gabe isolazionismoa lortzen ahaleginduko den gehiengoaren araua, askatasun testuinguru batean -bidegabea eta anti-demokratikoa izateaz gain- eragingarria al da ala gatazka piztu besterik ez du egiten? Gaur egungo botereak bere buruari egin beharreko gal-dera da hau.

<sup>2</sup> Aurrerantzean ustezko euskonafar identitatea labur azalduko da.

<sup>3</sup> Konstituzioaren 4. Xedapen Iragankorra, Gernikako Estatutua (47-2 eta 2.artikuluak), Foruaren Hobekuntza (2. Xedapen Gehigarria).

<sup>4</sup> Konstituzioaren 145. art., Gernikako Estatutuaren 22. art., Hobekuntzaren 70. art.

## EAE eta Nafarroaren arteko lankidetzak akordioa.

Beste bide bat bi elkarten arteko komunikazio bideak zabaltzea izan da. Momentuz, komunikabide batek kasualitatez argitaratutako sozialisten ustelkeriak eragindako krisiaren ondorioz lortutako lankidetzak ituna porrotera joan zen. CDN eta PSOEn babesean, eredu honek aldaketa garrantzitsu bat ekarri zuen. Alde onak zituen: arazoa onartzea, aurreko ibilbidearekiko haustura, neurri batean, kontzeptu interesgarri batzuen erabilera (lankidetzak, topaketa, bi lurraldeen parekotasuna).

Aldi berean, ordea, gabezi nabariak agertzen zituen: eskuduntzarik eza, beraz, zerbait eman edo entelekia huts bat bihurtu zitekeen; zehaztugabetasun handia eta funts txikia, argi zegoen bakarra urtean bi aldiz bilduko zela zen; kanpoko instantzia eta legeekiko erabateko menpekotasuna, hauen boterea EAE, Nafarroa eta beren hiritarren borondatearen gaineratik dagoelarik. Hara non, bi elkarten arteko harremanak beren nahi eta borondateen arabera eraiki ordez espainiar Konstituzioa den Damoklesen ezpataren arabera eraikitzen dira. Indarrean dagoen legeria, hots, autonomi elkarten artean itun federalak eta antzekoak espreski debekatzen dituen legeria aldatu beharrean, lege-itzulunguru bati esker artifizialtasun nabariko emaitza sortzen da. Azken batez, hain anbigua zen ezen zerbait eman ala hutsera eraman baitzezakeen.

Bere defizita oraindik handiagoa zen gutxiengo euskaltzaleari bere eskariak aurrera eramateko bitartekorik gabe utzi zuela kontuan hartzen bada.

## Indar euskaltzaleak.

EAErekin batzearen aldeko tesietatik ere gehiengoaren araua aplikatu izan da, lurralde-ikuspegitik eta *dena ala ezer ez* irizpideen arabera.

Honi hanka-sartze nabarmen batzuk gehitu behar zaizkio. Batetik, HBren eta, bestetik, ETAren inguruan egituratutako blokeak Hego Euskal Herriaren batasunari, Nafarroa barne, gutxienezko baldintza iritzi izan dio -eta honi eutsi egiten dio 1995ean aurkeztutako bere Alternatiba Demokratiakoan- nafarren irizki esplizitua alde batera utzita. Honetan indar euskaltzaleen proiektua (ETA, Batzarre, HB, EAJ, EA...) eta gizarteak nahi duena nahastu egiten dira. Gutxienezko eskakizun hau justifikaturik legoke baldin eta Nafarroako egoera horri egokituko balitzaio. Hain da okerra egungo egoerari buruzko azterketan ezen aipatze hutsak irtenbidea bilatzen lagundu baino hau kaltetu baizik ez baitu egiten. Eta, ziurrenik, honelako planteamenduekin kaltetuenak Nafarroako euskaltzaleak gara.

Era berean, sektore euskaltzale hauetatik eta beste batzuetatik ere bai, nafar identitatea ez da kontuan hartzen behar bezala edo ezabatu beharreko gaitzat hartzen da. Ondorioz, gorrotoa eta bidezko autodefentsa erreakzio bat sortzen da. Euskaltasunak nafar izatea onartu behar du identitate anitz kontzeptuaren barruan, hiritar guzti-guztiak biltzen dituen irudizko mapa baten zati baten gisan. Hala egin ezean hiritar multzo bat kanpoak utziko du inolako justifikaziorik gabe, gehiengoan dagoen multzoa gainera.

**EAE eta Nafarroaren arteko lankidetzak akordioak alde onak zituen: aurreko ibilbidearekiko haustura, neurri batean, kontzeptu interesgarri batzuen erabilera (lankidetzak, topaketa, bi lurraldeen parekotasuna). Baina (...) eskuduntzarik eza, sendotasun eskasa, kanpoko legeekiko erabateko menpekotasuna, hauen boterea EAE, Nafarroa eta beren hiritarren borondatearen gaineratik dagoelarik.**

Logika ez da zentzugabeko liskarra, bata bestea onartzea baizik. Etorkizunari begira ere, ez al litzateke komenigarria izango identitate euskonafarrerantz ibiltzea, bi identitatearen batuketa bailitzan, batzuentzat bat eginez eta beste batzuentzat (nafartarrak soilik sentitzen direnentzat) bestelako arketipoa sortuz; errealitatea era naturalagoan egokituz; gurea den *guztia* defendatuz nafar hiritarrekin zerikusirik ez duen eta, beraz, egokia ez den zer-bait defendatu ordez; aniztasunari erantzunez, euskal, nafar eta bestelako identitate amankomunak bil ditzakeen esparrua sortuz; azken batean, ikuspegi erredukzionista, esklusibista, uniformizatzailea eta jakobinoarekin hautsiz?

## BA AL DAGO BESTE BIDERIK? GEHIENGO ZEIN GUTXIENGOARENTZAKO ALTERNATIBA BAT

**Identitate arazoan aurrean gehiengo eta gutxiengoaren gogoak ondoenik asetu, alderdien bizikidetzaren ona lortu eta konfidantza giroa sortzea komeni da; demokraziaren adierarik heldu eta sakonenari dagozkion bideak hartuz: Profil orokorrak eta elkarten arteko harremanak gehiengoaren arabera definitzea. Nafarroako komunitate euskaltzalea aintzat hartzea.**

Identitate arazoan aurrean gehiengoaren arauak zerbaitetarako balio du: gehiengoaren irtzia ezagutzeko, esparru orokorraren definizio nabartua, zerbait arauketetarako erreferentzi nagusia. Oker dago, ordea, honela dena konponduta dagoela uste duena. Alderantziz. Gutxiengoan dagoen komunitate-identitatea aldatu ordez errezeloa handitu egiten da. Honexegatik, gehiengo eta gutxiengoaren gogoak ondoenik asetu, alderdien bizikidetzaren ona lortu eta konfidantza giroa sortarazten duen ikuspuntua hartzea komeni da. Logikoki, honek errealitate konplexuari aurre egingo dioten bide anizkun eta zailak hartzeko eskatzen du; baita, gehiengoaren arauan oinarriturik, itxurazko erreztasun eta sinplifikaziotik ihes egin eta praktikara eramangaitzagoak diren beste bide batzuk hartzeko ere. Halaber, gatazka-errealitatearen eragozpenak zuzen banatzeko ere eskatzen du. Hauxe da nolabaiteko liskarrean bizi den gizarte anitz honentzako planteamendurik egokiena; demokraziaren adierarik heldu eta sakonenari ondoen egokitzen dena da.

Egonezintasun hauek gogoan ditugularik, jarraian datozen puntuak azalduko ditugu. Galderaz beteta eta iradokizunetara erabat irekiak gaude. Badakigu, jakin, arazo zail eta errezeloz nahiz uleru ezinez betetako honen aurrean gure nahia eskaintzen ditugun irtenbide praktikoak baino indartsuagoa dela.

### 1) Profil orokorrak eta elkartearteko harremanak gehiengoaren postulatuen arabera definitzea.

Denok Nafarroako gaur egungo markoa onartzen dugun bitartean -egundaino inork ez du-eta zalantzan ipini- ez zaigu bide egokiagorik bururatzen.

Baina emaitza honek amarrurik gabeko prozesu garbi baten ondorioa izan behar du. EAE eta Nafarroaren arteko harremanak eta Hobekuntza erabaki ziren moduak -sektore euskaltzalea negoziatuz kanpo utziz, bere nahiak zapuztuz eta herriaren berrespenik gabe



onartuz- ez ditu gutxienezko baldintzak betetzen. EAE eta Nafarroaren arteko harremanak eratzeko orduan ez dago justifikaturik Estatuak berari ez zegozkion kontuetan esku hartzea. Berezko intereseko arazoetan zergatik aratutu behar dute bi elkarteetatik kanpoko legeek, espainiar konstituzioak alegia?

## 2) Nafarroako komunitate euskaltzalearen eskakizunak kontuan hartu eta, neurri batean bada ere, hauei irtenbidea ematea, beren eskubideak onartzea.

Egungo errealitatea definitzen duten ezaugarri nagusiak hartu beharko genituzke abiapuntutzat: gehiengoa batasunaren kontra dagoela onartzea; nafar izatea onartu eta Euskal Herri anitzaren zati legitimoa dela ulertzea nafar desidentifikazioari zaion beldurra ezabatzeko. Halaber, gutxiengo euskaltzalea aintzatetsi eta bere etxearen barruan bizitzen uztea; lor dezakeen ordezkariatzagatik dagokion ahotsa ematea; gutxiengo honi zuzendutako politika programatzeko orduan nafarroako lurraldean zehar barreiaturik dagoela kontuan hartzea.

Erakusgarria da gizartean euskara bezalako kontuak aurrera nola doazen ikustea. Demokrazia erlatiboko egoera batean nekez egin dakiokeen aurre gizartean piztu eta bertan indarra hartzen ari den kausari.

Gutxiengo euskaltzaleari hainbat esparrutan erantzun dakioke. Jarraian aipatuko denetik zera azpimarratu nahi genuke, garrantzitsuagoa dela nora joan nahi dugun postulatu zehatzak baino.

## GUTXIENGO EUSKALTZALEARI ERANTZUNAK

### Euskal izatea Nafarroan

Nafarroan euskal izateari dagokionak hainbat esannahi ditu. Hauteskunde eta politikaren esparruan pisu espezifikoak du. Inkesten arabera, pisu hau handiagoa da EAerekiko batasunari dagokionean eta kultur-esparruan nabarmenagoa oraindik. Eta, ziurrenik, ez dago nafar izatean euskal kutsurik badagoela uka dezakeenik.

Euskal izate honi aintzatespen eta tratamendu egokia emango bazaio ezinbestekoa izango litzateke Nafarroako komunitate euskaltzaleari lege-eskaintzak egin eta bideak zabaltzea. Bidezkoa da oso. Botereari kendutako neurriei eta sartutako berrikuntzei lege-gorputza eta trinkotasun handiagoa eman beharko litzaizkieke:

- **Hala nahi duenari bi identitate edo hiritartasun izateko aukera onartzea.** Nafar eta euskal identitateak dituenari irtenbide bat ematean datza. Lurraldeari lotuta ez dauden faktoreen eragin handiagoa duten identitate konplexuago eta ez uniformeak izateko joera hazkorrarekin bat letorke (higikortasun geografikoa, nortasun aniztasuna).

a) Irudi hau sortze hutsak izugarriko garrantzia hartzen du hala bizi dutenentzat identitate, sentimendu eta sinbolo-esparruan.

b) Hemen, Nafarroan, hiritar euskonafarren zentzuzko eskakizunei erantzunez eskaintza multzo batek egon beharko luke. Gaur egungo euskarazko irakaskuntza ereduari Nafarroako zati zabal batean eragina duen **zonaldekako murrizketa** -hau da, edozein haurrek euskaraz ikasteko aukera izatea- kentzea honen adibide ona da. Sektore euskaltzalearen gogoia asetzera zuzendutako neurri edo eskaintza hauek hiritar guztien eskura daude.

c) EAerekiko hitzarmenaren bidez bi elkarteetako hiritarrentzako zehaztu beharreko elkarrekiko eskubide multzo bat jaso beharko litzateke (beste elkarteetan zerbitzu eta prestazioak eskuratzeko eskubidea, bere elkarteetan ez dauden eskubide edo zerbitzuak eskuratu ahal izatea, elkarte bakoitzeko hiritartasunari dagozkion eskubideak automatikoki eskuratzeko, bizilekuaren aldaketarik balego...).

d) Honen muga eta gora-behera guztiak kontuan hartu beharko lirateke hitzarmen hauen fede txarrezko erabilerarik gerta ez dadin.

Bi identitateak dituztenei nola egoki erantzun pentsatzen hastean zera galdetu diogu geure buruari, guztientzako tratamendu bera izan, hau da, zehaztugabe eta irekia, ala, ostera, eskatzen duenarentzat zehatza izan<sup>5</sup>. Azken formula hau hobetsi dugu; izan ere, honi esker Nafarroako gutxiengo euskaltzalearen eskakizunei sentitzeko era desberdinak elkarrengandik gehiago banandu gabe erantzun ezezik identitate euskonafar berria eraikitzen ere lagun dezake. Hala ere, arazo hau ez dago erabakita eta litekeena da nahi duen nafar hiritarrak euskal hiritartasuna zuzenean lortu ahal izatea ahalbidetuko dioten formula mistoak ere egotea.

- **Euskal ikurak arautu eta onartzea herriaren iritzi egiaztatua kontuan hartuz eta gutxiengoei lehentasuna emanez.** Honen bidez gutxiengo euskaltzaleari gustua egingo litzaioke gehiengoarentzako batere kalterik gabe; azken honek bestea baliogabetu nahi ezean. Udaletxeetan, erdi-mailako erakundeetan eta hala nahi duten bestelako entitateetan errez egin beharko litzateke. Era berean, maila orokorragoan ere bai, beren ikurretan ordezkatuak egon nahi duten sakabanatutako milaka lagun nahie erantzuteko baldin eta ordezkagarritasun nahikorik badute.
- **Bi elkarteetan amankomuneko asoziazionismoa egoteko aukera ematea, hainbat arlotan dagokien sektoreek hala nahi badute:** federakuntzak, elkargo profesionalak, kultur eta kirol-entitateak, bestelako korporazio edo taldeak. Honi dagokionean, euskal eleiz-probintziaren sorraren kontrako UPNren esku hartze eta presioa onartezina da. Gozainen arabera, artzain-zioengatik, funtzio hori betetzen ari da, bete ere. Arrazoi beragatik mendi-federakuntzarekin edo gazteriaren arlo ofizialekin gertaturikoa ere honen adibideak dira.

**Euska izatea Nafarroan: Hala nahi duenari euskal eta nafar identitateak onartzea. Euskal ikurak arautzea gutxiengoei lehentasuna emanez. Asoziazionismo euskonafarra egoteko aukera ematea, federakuntzetako, elkargo profesionaletako, kultur eta kirol-entitateetako eta abarretako kideek hala eskatzen badute. Euskarari buruzko politikan esku hartzea. Beste arloetara zabaltzea.**

<sup>5</sup> Urrats honek, nola edo hala, geure buruari hiritartasun errolda egitea planteatzera garamatza. Hala egin den leku edo garaietako ( esaterako, Erdi Aroko Nafarroan) komunitateen arteko zatiketa gaur egun gure lurraldean dagoena baino askoz ere handiagoa zen. Normalean, errolda ezarri eta, norbera erregistraturik dagoen elkartearen arabera, bizi publikoaren zati handi batean banandurik egoteak gutxiengoaren defentsa-jarrera eta gehiengoaren errezeloa piz ditzake. Honen ondorioz, bereizitutako taldeen arteko zatiketa eta mugak handitu egiten dira. Haatik, euskaltasunari Nafarroan tratamendu ona ematea ahalbidetuko luke eta sektore antieuskaldunen aurrean eutsi eta presio egiteko faktore gisa balio dezake. Gaur egun, oztopoak abantailak baino gehiago dira. Baina heldutasun demokratiko handiagoa eta kultura tolerantetagoa nagusi den egoera batean ez litzateke zertan istilu handiegirik sortu beharko.

- **Euskarari eta kultura euskaldunari buruzko politikaren diseinuan esku hartzeagatik**, gai honekin komunitate euskaltzaleak agertzen duen sentiberatasuna kontuan hartuta. Nahi duenak horretan parte hartzeko bideak zabaldu eta erakundeak sortzea. Honek ez du esan nahi, noski, euskaragatik kezkatutakoak sektore horretan besterik ez daudenik. EAErekin batzearen alde ez daudenen artean ere euskararen arazoak badu ohiartzunik. Eta, neurri batean, bertako ondareztat ere hartzen da. Hau ona bezain egia da.

Ziurrenik neurri hauek beste esparru batzuetara hedagarriak dira.

## Esparru amankomuna EAErekin

Bi gertaera kontraesankor ditugu abiapuntu. Lehen eta orain, EAEko jendearekiko antzekotasunak begibistakoak dira; honetantxe datza, hain zuzen, sentimendu hori harreman berezi batean gauzatzeko komenigarritasuna. Aldi berean, herriaren sektore zabalak beldur dira EAErekin lotura indartsuak ez ote duen nafar identitatearen galera ekarriko.

Bi gertaerok kontuan hartuta zera egin beharko litzateke:

- **Herriaren aniztasun nahiari erantzun.** Funtsean zera daukagu, EAErekin lotura hestuen aldeko sektore bat, beste sektore bat erabat aurka dago eta gizarteko esparru zabal bat nafar subiranotasuna ez galtzearen aldekoa da baina elkarlanerako prest dago, maila eta ñabardura desberdinekin eta zio diferenteengatik bada ere: kultur-euskaltasuna, EAErekin hurbiltasun sentimendua, beste alderdiaren aurrean amore emanez bake bidezkoagoaren mesedetan, aniztasunak eragindako ergozpenak era orekatuagoan banatzeko, beste identitatearekiko begiruneagatik.
- **Epe ertaineko ikuspegi jartzea** elkarrekiko konfidantza sakontzeko.
- **Egungo erregelak haustea; izan ere, dena ala ezer ez lortu nahian gutxiengo euskaltzalearen zapuzketa besterik ez dute sortzen.** Hau gehiengoak ez du oso gustoko; izan ere, ezegonkortasun iturria da. Korronte erabat antieuskaldun eta errebantxazaleen gogoia baino ez du asetzen.
- **EAErekin harreman bereziak zabaltzea** gaur egun dauden loturetan eta elkarrenganako interesean oinarriturik eta Nafarroako herriaren sektore zabal baten nahia asetzeko. Honek ez du zerikusirik alboko beste elkarte batzuekin. Halaber, hau EAEko hiritarren nahiarekin bat etorri eta atsegingarria izango litzateke.

Esparru honi osagai sinbolikoez, espazio errealez, elkartearteko erakunde- ez (EAE eta Nafarroaren artean batik bat, eta, era mugatuagoan Iparralde-ekin ere bai) eta Estatu espainiarrarekiko batzordeez hornitu beharko litzateke. Funtsezko eztabaida proposatutako lerro nagusien inguruan mugituko dela jakin arren, hona hemen puntu batzuk adibide gisa:

**Arlo sinbolikoa.** Bere garrantzia sentimendu eta identitate-beharra betetzean datza. Amankomuneko espazioa sortze hutsak korronte desberdinen arteko

**Amankomuneko esparrua EAErekin: Esparru honi osagai sinbolikoez, hiritarrentzako eskuduntza erreal eta erabilgarriez, elkartearteko erakunde- ez (Nafarroa-EAE nagusiki eta Iparralde-ekin era mugatuagoan) eta espainiar Estatuarekin batera sortutako batzordeez hornitzea. Nafarroako herriaren berrespen garbia kontuan hartuz.**

integrazio eta gogobetetzea ekarriko lituzke. Aldebakartasuna eta egitezko egoerei itzuri egin eta bi elkarteen berezko ikurrak erabil litezke. Honek gaur egungo mesfidantza gainditzen, leialtasun giroa sortzen eta errealitateari ideologia baztertzailerik gabe egokitzen lagunduko luke. Datozen belaunaldien artean liskar antzurik egotea eragotziko duen bizikidetzaren hobea-goaren mesederako izango bada, zergatik ez da posible izango ikur-trukea?

**Esparru edo eskuduntza erreal eta erabilgarriak hiritarrentzako.** Inolako aurreiritzirik gabe jokatu beharko litzateke, alferrikako ekintza handirik gabe eta amankomuneko interes eta guztion onura, burokrazia zein gastu aurrezteko kontuan hartuz. Sortutako amankomuneko erakundeek egikaritutako eskuduntzak izango lirateke. Ezpairik gabe, badaude esparru batzuk non elkarlana oso emankorra gertatuko bailitzateke. Adibidez: irakaskuntza, euskara, Telebista/EITB, komunikabideak, osasungintza, unibertsitatea, kirola (erakunde-arlo barne), EBrekin lotutako arazo batzuk (bi elkarrekin berezko gaitan zein Akitaniarekin batera osatutako euroerregioari dagokionean), eskualde mugakideekin interes amankomunaren duten arazoetan, espainiar Estatuaren aurrean antzeko eskubideen defentsan elkarrekin lan egitea, arlo ekonomikoa, ingurugiroa... Iparralderekin amankomunekoak diren kontuak: esate baterako, euskara eta kultura euskaldunari dagokionean. Noraino helduko litzateke?, Zenbat arlo hartuko lituzke? Bere erabilgarritasun sozial eta zehatzaren arabera erabakiko litzateke.

**Elkarrekin erakundeak.** Hauetan elkarrekin egiten diren lankidetzak eta adiskidetasun izpirituak nagusi izan beharko luke; parekidetasuna ezinbestekoa litzateke. Organo hauek bakoitzaren parlamentua (non gutxiengoa ere ordezkaturik baitago) eta exekutiboak oinarri hartuz eratu beharko lirateke. Informazio edo kontsulta, lankidetzak edo armonizazio funtzioak bete ditzakete, edo betearazteko funtzioak ikututako gaiek hala eskatzen dutenean. Beraz, dagozkion funtzioak bete ezezik errezeloak ezabatzen, harreman arina eta konfidantza sortzen ere lagunduko duen funtzionamendu erregular eta maizkoa. Erabakiak hartzeko ezinbestekoa da bi aldeek akordioa, hots, kontsentsua. Beharrezko batzorde edo erakunde ordezkatzailerak sortu eta dauden administrazioez baliatu beharko litzateke. Hauen gaineko kontrola eta ikuskerak izatera orokorragoko erakundearen ardura da.

**Espainiar Estatuarekin batera batzorde bat sortzea.** Besteak beste, honelako arazoei dagokionean Estatuaren legeria eta Konstituzioa EAE eta Nafarroaren arteko akordioei egokitzeko eta bi elkarrekin Estatuaren aurrean elkarrekin planteatu nahi dituzten arazoak tratatzeko balio beharko luke.

**Edozein proiektu Nafarroako herriaren berrespen esplizitua behar du.**

Errealitate aldakorra kontuan hartuta, ikuspegi dinamikoa hartu eta honen bilakaerari egokitutako mekanismoak ezarri beharko lirateke. Era berean, bi sentimenduetako gehiengo kualifikatuen bidez gutxiengoentzat berme mekanismo batzuk hitzartu beharko lirateke bidegabekeriarik ez egoteko.

## EUSKALTASUN MODERNO ETA INTEGRATZAILEA

Nafarroan gure proiektu euskaltzaleari eusten diogu. Eta, zehazkiago, arazo honetan Lauak bat! leloaren alde egiten jarraituko dugu lau herrialdeentzako aukerarik egokiena delakoan, beti ere malgutasunez eta gizartearen eraldaketa osoa, gizaki askeagoak eta zoriotsuagoak lortzeko helburua gogoan dugularik. Hauxe da, hain zuen ere, hausnarketa honen xedea.

Ikuspuntu honetatik izpiritu integratzailea oinarri duen proiektu baten aldekoak gara, gure luraren berezitasunak defendatu eta, aldi berean, euskal hiritarreganako ageriko ala izkurtuko diskriminazioa baztertuko duen proiektua alegia; gatazkaren oinarriak oso sakonak direnez erabateko integrazioa, ziurrenik, balore lortezina izan arren, komenigarria da horren alde egin eta helburu hori finkatzea; izan ere, guztion mesederako izango da.

**Gaurkotutako** proiektu honek errealitateetik abiatu eta egungo joerak aitzat hartu behar ditu: 1987tik aurrera indar abertzaleek ez dute hauteskundeetan gora egiterrik lortu; Nafarroan euskal batasunaren aldeko alderdien atzerakada hauteskunde eta politika arloetan; gure gizartearen jazotako era guztietako aldaketak, hau da, subiranotasunaren betiko esannahiaren aldaketa (herrialde guztien arteko elkarren menpekotasuna, subiranotasunak muga berriak ditu, besteak beste, ekologiatik, planetako arazoan garrantzi hazkorra); indentitate konplexuago eta anitzagoak (lurraldeari dagozkionak ezezik pertsonalak, dibertsifikatuak eta partekatutak); nazioaren inguruko diskurtsoa demokraziaren ikuspuntutik lantzerantz behartzen duten frankismoaren ondorengo aldaketak; behin eta berriz errepikatutako bi identitateen presentzia Hego Euskal Herrian.

Europar esparru politikoaren garapenak nazio-pentsamoldean sekulako eragina izango duen egoera apartekoa sortaraziko du: europar identitate berriak, bere izaera integratzaileari esker (denok esparru handiago baten barruan), Nazio-Estatu zaharrak *banantzeak* dakarren haustura leun daiteke, baita naziorik gabeko Estatuaren independentzia kontzeptu zaharraren garrantzia arindu ere; honen ondorioz Europako errgioak sortu eta autonomi elkarrean arteko harremanek irizpide funtzionalei jarraitu eta horizontalak eta lankidetzan oinarrituak (lehia eta gatazka ere egon liteke) izango dira. Honek guztiak eragina izango du nazio-kontzientzia berrian eta naziojiteko gatazketan. Beraz, nahitaezkoa da diskurtso euskaltzalea (eta abertzalea) eraberritzea eta modernizatzea. XIX. mendeari baino XXI. mendeari begiratu behar diogu.

**Gizarte-gehiengo berri bat** eratu behar da gaur egungo autonomismoaren gabeziak gaiditzeko, abertzale eta ez abertzaleen arteko bereizketa apurtzeko eta, karranka handirik gabe, bi identitateetako sektoreek bereizkotzat duten proiektu berri bat sortzeko. Gaur egungo testuinguru historikoan Estatuak nekez egin liezaioke aurre honelako gizarte-proiektu bati.

Ildo honetan, bi aldeek adostutakoan oinarritutako **euskal ituna** proposatu behar da: irtenbide demokratiko eta sentimendu guztien arteko orekarako atea ixten dituen Konstituzioa erreformatzea. Euskadi izateko azken bermea den subiranotasuna -geure etxearen jabe garelako- Estatuak eta Europako errealitatearekin uztartzea; ildo honetan, euskal subira-

**Izaera integratzaileko euskaltasuna, gurearen berezitasunak defendatu eta, aldi berean, euskal hiritarreganako diskriminazioa baztertuko duen proiektua alegia; (...) erabateko integrazioa, ziurrenik, balore lortezina izan arren, komenigarria da horren alde egin eta helburu hori finkatzea; izan ere, guztion mesederako izango da.**

notasuna eta partekatutako esparrua elkartzeko aukera egotea. Identitate aniztasuna defendatzea egun dagoen nazio-aniztasunari zor zaion begirunea galdu gabe eta herriari berezkoak zaizkion berezitasunak garatu eta mantenduko direla bermatuz. Halaber, zenbait gatazka izan behar dituen bizikidetzarako arauak ezartzea. Hau guztiaren azpian egonkortasuna eta elkarren onarpena emango dituzten gehiengo kualifikatuak egotea. Etorkizun askea, irekia eta datozen belaunaldiek erabakitakoaren menpekota planteatzea.

Iraganetik ikasi euskal abertzaletasunak eragozpen guztien gainetik aurrera eramandako bertako berezitasunen defentsa zuzena jaso eta hiritar multzo bat baztertzeko euskal herriari buruzko bere ikuskera eskusibista zuzenduz. Nafar izateari zor zaion begiruneari eusten dion euskaltasuna, besteak bereganatu nahi gabe egungo identitateen gainean euskal ondarea sortu nahi duena: euskal eta nafar identitateak. Hala egin ezean edukirik gabeko errtorikan errez eror daitekeen proiektu okerra eta bideraezina izango da.

